

Arratsalde on denoi!

Hasteko eskerrak ematen dizkizuet eman didazuen ardura honengatik. Nik uste, hiru urteotan egindako lanaren ondorioz jarri duzuela konfiantza hori nigan, beste saio baterako. Benetan eskertzen dizuet emandako konfiantza eta ahalegindu gara egin dezakegun guztia egiten, zuek jarritako uste onari behar den bezala erantzuteko.

Urtebete falta da hurrengo hauteskundeetarako. Mezu nagusia hau da: orain arte egin dugun gauza bera egin behar dugula hemendik aurrera, hau da, egunero gogotik lan egin. Hori da niretzat hartu dudana betebeharra.

Egia da une gogorak bizi ditugula ekonomian, gizartean eta baita politikan ere. Beraz, momentu konplikatuak da eta horrexegatik da hain inportantea orain arte egin dugun bide beretik jarraitzea. Niretzat oso garrantzitsua da koherentzia mantentzea eta hartuta dauzkagun konpromisoei eustea.

Hiru kontzeptu nagusi aipatuko ditut:

Lehenengoa, **eraginkortasuna eta zorrotasuna kudeaketa ikuspegitik**. Nik uste dut hiru urteotan hori izan dela gure zigilua. Eraginkor eta zorrotz jokatu dugu kudeaketan eta ibilbide horretan Gipuzkoan, hainbat eta hainbat arlotan, guztion artean aurrera egiteko aukera izan dugu. Oso garrantzitsua da hori niretzat, erantzukizun hori guregurea baita.

Bigarren arloa, **gure herriaren defentsa egitea**. Hori dugu politikoki guk daukagun betebehar eta obligaziorik handiena. Eta eutsi egin behar diogu.

Eta hirugarren, **herritarrengana gerturatzea eta kultura politiko berri baterantz joatea**. Eta, lan hori bere-bere egitea EAJk, bere eginkizun nagusitzat hartzea.

Lehenengo arloari dagokionez, kudeaketa eraginkor eta zorrotzari dagokionez, koiuntura ekonomikoari begiratzen badiogu, nik uste dut oraingo nahasmen ekonomiko ikaragarri honetan ikusten dugula nola Espainiako gobernuan noraezean dagoen eta bere kudeaketa hain den kaotikoa, gauzak nola doazen egunetik egunera aldatuz. Egoera halakoa izanik, ezinbestekoa dugu gure herriak, eta gure lurraldeak dauzkan apustuei eustea. Bada, guk daukagun apustu nagusia da esatea: gu lurralde industrialak gara, gure industrian sinesten dugu eta gure lana izan behar da egoera larrian dagoen gure industriari eustea, bultzatzea eta laguntzea. Ezinbestekoa da eguneroko gure babesa izan dezan. Izan ere, ikusten baitugu gure ongizatearen iturri nagusia gure enpresa-sarea dela.

Beste gauza bat aipatu nahi dut hemen. Gu gizarte solidarioa gara, elkartasuna bultzatzen dugu. Baina gauza bat daukat oso garbi: ikuspegi sozial batetik egiaz aberastasuna banatzeko, ezinbestekoa da lehenik aberastasuna sortzea. Eta horretarako guk daukagu kultura bat eta egitura ekonomiko bat. Beraz, horri eutsi behar diogu. Arlo honetan, une honetan egin beharreko apustua –Pedro Migel Etxenik zioen hitzaldi batean, hain zuzen– ez da epe motzekoa bakarrik, baizik eta epe ertain eta luzekoa ere bada; alegia, ezagutzen, zientzian eta teknologian inbertitzen jarraitu beharra daukagu. Gipuzkoarrok puntan gabilta hor, eta horren alde egiten segi beharrean gaude.

Bigarren arloa, ikuspegi politikoa: gure herriaren defentsa. Aurrean daukaguna garbi dago: PP eta PSOEn arteko fronte bat daukagu, gure herria autonomia huts bihurtu nahi duena. Hori da operazio politikoa eta aurre egin behar diogu. Eta, gainera, nire iritziz, gure lurralde honetan, Euskal Herri osoan, baina Gipuzkoan ere bai, EAJk dauka ardura fronte horri aurre egiteko ikuspegi abertzale batetik. Hori gogoan, nik esango nuke ateak zabalik eduki behar ditugula gainerako alderdi abertzaleekin elkarlanean espazio bat lantzeko eta partekatzeko. Bistan da, guztiok oinarri etiko bat baldin badugu bakarrik egin ahal izango dugula hori, indarkeriari aurre egiten diona. Baina espazio hori ezinbestekoa da. Momentu honetan daukagun abertzaletasunaren zatiketak ahuldu besterik ez gaitu egiten, izan ere.

Eta hirugarren alorra: politika egiteko modu berri bat. Zertan gauzatzen da hori? Erakunde publikoen arteko lidergo partekatu batean, batetik; bestetik, gizartearekin lankidetzan aritzeko gaitasunean eta, hain zuzen, guretzat, legealdi honetan, iparrorratza eta helmuga izan denarekin jarraitzean, hau da, herritarrengana gerturatzea eta herri-politikan esku hartzeko aukera ematea izan dira gure akuilua eta motorea. Hori, herritarren parte hartzea eta hurbiltasuna, eginbidean jarri behar da, bide praktikoa bat ireki behar zaio. Horretan ibili gara orain arte eta horretan ibiliko gara aurrerantzean ere.

* * * * *

Es, por lo tanto, un momento crucial el que vivimos ante las próximas elecciones que se celebrarán dentro de un año.

Os he agradecido al inicio la confianza que habéis depositado en mí. Pero, evidentemente, estamos hablando de un trabajo compartido. Lo tenemos que realizar todos, desde la perspectiva de un momento complicado en lo económico, en lo social y también en lo político.

Para mí, el camino que hemos recorrido a lo largo de esta legislatura, en estos tres años, contiene una serie de principios y vectores que hemos de mantener con una coherencia firme.

Quisiera enunciar tres ideas:

- ***Apostar por una gestión eficaz y rigurosa en el ámbito público. Es fundamental hacerlo en una coyuntura de crisis económica.***
- ***Continuar defendiendo nuestro país.***
- ***El acercamiento de la política y de las instituciones a la ciudadanía vasca en general y gipuzkoana en particular.***

Desde el punto de vista de la gestión, vivimos un momento en que observamos en el gobierno de Rodríguez Zapatero una gestión económica absolutamente caótica. Ante tal situación es muy importante que sigamos con las señas de identidad de nuestra política industrial y económica, como país y también como territorio. La apuesta por el conocimiento y el I+D+i. En Gipuzkoa hemos incidido mucho en este campo de la innovación e investigación, y hemos de continuar por esa misma línea, siempre con la mirada puesta en nuestra industria, que es la base de nuestra economía. Ligado todo ello a nuestro carácter solidario. Siempre he considerado que para realizar un reparto

equitativo de la riqueza, primero hay que generar riqueza. En ese aspecto es muy importante nuestra cultura industrial y económica, que es la que tenemos que fortalecer con diferentes apuestas, la mayoría de ellas ligadas a la innovación, a la ciencia y a la tecnología.

En segundo lugar, tenemos que mantener firme nuestra posición ante una estrategia llevada adelante por el Partido Popular y por el Partido Socialista, que pretende que Euskadi se convierta en una mera autonomía. Una dilución del carácter nacional de Euskadi, una estrategia que pretenden trasladar al conjunto institucional. El PNV debe, debemos liderar una respuesta ante esa estrategia que es, además, una estrategia de Estado. Y debemos hacerlo con las puertas abiertas, con capacidad de trabajar con el conjunto de las fuerzas y formaciones nacionalistas. Tenemos que tener esa capacidad porque la división del ámbito nacionalista no hace más que debilitar nuestra posición. Siempre que mantengamos una base ética común y firme en contra de la violencia, ese ámbito lo tenemos que ir trabajando.

Y, en tercer lugar, el cambio hacia una nueva cultura política en el territorio de Gipuzkoa. Estamos avanzando poco a poco y tenemos que ir consolidando este camino, por un lado en el ámbito público, mediante un liderazgo compartido entre todas las instituciones a fin de responder a los retos del territorio; por otro lado, en la colaboración pública y privada con un territorio de un tejido económico y social, en la solidaridad y en el deporte... muy importante, por lo que tenemos que ser capaces de colaborar permanentemente con ese tejido; en tercer lugar, en lo que constituye una de las señas de identidad más importantes de esta legislatura: el reto del acercamiento a la ciudadanía para que los ciudadanos participen cada vez más en las políticas públicas, se vaya acercando al espacio de la política, porque el alejamiento actual de la ciudadanía de las instituciones choca con la democracia y la convivencia.

Amaitzera noa. Ardura handia hartu dut zuek igorrita. Heltzen diot ardura horri herriak eskatzen digun jarrera batekin. Eta jarrera hori laburbildu daiteke hiru hitzetan: konpromisoa, konpromisoa eta konpromisoa. Nik behintzat jarrera hori izango dut hemendik aurrera ere. Uste dut herriak eskatzen diguna herriari eskaini behar diogula. Hori da gure erantzukizuna, EAJrena, eta hala erantzungo dut aurrerantzean ere.

Eskerrik asko guztioi **eta Gora Euskadi Askatatuta!**